

3/2025 EBAZPENA, irailaren 22koa.

RESOLUCIÓN 3/2025, de 22 de septiembre.

BATZORDEBURUA: María Eugenia Maté Mendieta

PRESIDENTA: María Eugenia Maté Mendieta

KIDEA: Nerea García Rodríguez

VOCAL: Nerea García Rodríguez

IDAZKARIA: Unai Aberasturi Cantera

SECRETARIO: Unai Aberasturi Cantera

Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak, arestian aipatutako kideek osatutakoa, **EBAZPEN** hau eman du Aaurkeztutako erreklamazioaren aurrean. Erreklamazio hori informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaerari Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritzak emandako erantzunaren aurka jarri zuen. María Eugenia Maté Mendieta andreak jardun du txostengile, eta Batzordearen iritzia adierazi du.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, compuesta por las personas integrantes anteriormente detalladas, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por frente a la respuesta dada a su solicitud de acceso a información pública por parte de la Dirección General de Inclusión Social. Actúa como ponente María Eugenia Maté Mendieta, quien expresa el parecer de la Comisión.

EGITATEZKO AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENENGOA. 2025eko ekainaren 18an, (aurrerantzean, bereizi gabe, edo “erreklamaziogilea”) informazio publikoa eskuratzeko eskaera egin zion Bizkaiko Foru Aldundiari zuzendutako.

PRIMERO. Con fecha 18 de junio de 2025, lo sucesivo, indistintamente, “ o “la reclamante”) presentó solicitud de acceso a información pública dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia.

Eskaeraren xedea den gaia hauxe zen: “Goiztiriren Bideberri programaren azken urteetako justifikazio ekonomiko eskuratzea. Beraz, justifikazio-memoriak emateko eskatzen dut”.

El objeto de la solicitud era “*tener acceso a la justificación económica de los últimos años del programa Bideberri de Goiztiri, por lo que solicito se me faciliten las memorias justificativas*”.

BIGARRENA.- Informazio publikoa eskuratzeko eskaeraren erantzuna Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak bidali zuen, uztailaren 4ko 293/2025 Ebazpenaren bidez.

SEGUNDO.- La respuesta a la solicitud de acceso a información pública fue emitida por la Dirección General de Inclusión Social del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, a través de su Resolución 293/2025, de 4 de julio.



Ebazpen horretan eskaera ukatu zen, jarraian jaso diren argudioetan oinarrituta:

“2) Informazio publikorako irispide-eskubideaz baliatzeko mugak: BAI, Foru Arau horretako [Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua] 21.2 eta 20.1 artikuluen ondoriozko zenbait muga gertatu direla ikusten dugu, datu pertsonalak babesteko araudiari buruz hurrengo apartatuan adierazitakoa gorabehera.

Zehazki, 21.2.c) artikuluan ezarritako muga betetzen da: “Administrazioaren zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-eginkizunak”.

Gure ustez, gure administrazioaren zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-eginkizunak oztopatzen ditu, are gehiago, erakundeak aurkeztutako justifikazio-memoriak geroago egiaztatzen ditu administrazioak, eta litekeena da behin betikoak ez izatea.

Datu pertsonalak.

Bai ikusi dugu hirugarrenen daturik dagoen, Foru Arauaren 20.5. artikuluan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedaturiko ondorioetarako.

Aipatutako 20.5 artikulua zera xedatzen du: "Informazio eskabidea jasotzen duten erakundeek datu pertsonalak kenduko dituzte, tartean sartutako pertsonen identifikazioa eragozteko, baldin eta eskabide hori ez badator bat datuak babesteko eskubidearekin. Datuak kendu ondoren, ezinezkoa bada informazioaren irismena zehatz edo ondo ulertzea, ukatu egingo da informazioa eskuratzeko aukera."

Erakundeak aurkeztutako justifikazio-memorien kasuan, datuak bereiztean, ezinezkoa da informazioaren irismena zentzuz ulertzea”.

Dicha resolución denegó la solicitud en base a los argumentos que se transcriben a continuación:

“2) Limitaciones al ejercicio del derecho de acceso a información pública: Sí se aprecia la concurrencia de alguna de las limitaciones derivadas de los artículos 21.2 y 20.1 de la misma Norma Foral [Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia], sin perjuicio de lo que se señalará en el apartado siguiente respecto de la normativa de protección de datos de carácter personal.

Concretamente, concurre la limitación establecida en el artículo 21.2.c): “Las funciones administrativas de vigilancia, inspección y control”.

Consideramos que interfiere en nuestras funciones administrativas de vigilancia, inspección y control, es más, las memorias justificativas presentadas por la entidad son objeto de una ulterior comprobación por parte de la administración, pudiendo no ser definitivas.

Datos de carácter personal.

Sí se ha advertido la existencia de datos de terceras personas a efectos de lo dispuesto en el artículo 20.5 de la Norma Foral y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

El mencionado artículo 20.5 establece: “Las entidades receptoras de la solicitud de información, en caso de solución con el derecho de protección de datos, procederán a la disociación de los datos de carácter personal mediante la cual se impida la identificación de las personas afectadas. Cuando de la disociación de datos realizada se deriva la imposibilidad de comprender cabalmente o entender de forma razonable el alcance de la información, se procederá a denegar el acceso a la misma”.

En el caso de las memorias justificativas presentadas por la entidad solicitadas se da el caso de que al disociar los datos se deriva la imposibilidad de comprender cabalmente o entender de forma razonable el alcance de la información”,



HIRUGARRENA.- Ebazpena 2025eko uztailaren 9an jakinarazi zen, eta uztailaren 10ean erreklamazioa jarri zuen, honako argudio hautetan oinarrituta:

“Eskaera adierazitako ekitaldietarako programaren justifikazio ekonomiko orokorrari dagokio soil-soilik, eta ez da beharrezkoa izango datu pertsonalik edo oraindik abian dauden egiaztapen edo kontrol administratiboko prozesuak arriskuan jarriko dituen informaziorik sartzea.

Datu pertsonalak egoteak ez du eragozten informazio publikoa eskuratzea, ezabatu edo anonimizatu egin baitaitezke 1/2016 Foru Arauaren 20.5 artikulua eta 3/2018 Lege Organikoaren arabera. Gehitutako edo kontzeptuzko informazio ekonomikoa guztiz ulergarria da, izenik edo bestelako identifikazio-datu pertsonalik gabe.

Eskatutako informazioak ez du ikuskapen-funtzioa oztopatzen, erakundeak aurkeztutako dokumentuei egiten baitie erreferentzia; dokumentu horiek dagoeneko administrazioaren esku daude, eta funts publikoekin finantzatutako jardueren gastuak eta finantzaketa islatzen dituzte”.

Arrekoan oinarrituta, hauxe eskuratzea eskatzen du: “zehazki, Goiztiriko Bideberri programaren 2022., 2023. eta 2024. urteetako justifikazioko memoria ekonomikak, hala badagokio, indarrean dagoen araudiaren arabera datu pertsonalak ezabatuko direla bermatuta”.

LAUGARRENA.- Erreklamazio horren ondorioz batzordeko idazkariak txostena eskatu zion Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari, bera baita eskuduna erreklamazioaren xede den gaien.

BOSGARRENA.- 2025eko uztailaren 22an, Zuzendaritza horrek txostena egin zuen eta, horren arabera, egokitzat jotzen du eskatutako

TERCERO.- Notificada la resolución el 9 de julio, interpone reclamación ante esta comisión con fecha 10 de julio, en base a los siguientes argumentos:

“La solicitud se refiere exclusivamente a la justificación económica global del programa para los ejercicios indicados, sin necesidad de incluir datos personales ni información que comprometa los procesos de verificación o control administrativo aún en curso.

La existencia de datos personales no impide el acceso a la información pública, ya que pueden ser eliminados o anonimizados conforme al artículo 20.5 de la Norma Foral 1/2016 y la Ley Orgánica 3/2018. La información económica agregada o por conceptos es plenamente comprensible sin incluir nombres u otros datos identificadores personales.

La información solicitada no interfiere con la función inspectora, ya que se refiere a documentos presentados por la entidad que ya obran en poder de la administración, y que reflejan gastos y financiación de actividades financiadas con fondos públicos”.

Y en base a lo anterior solicita se le facilite el acceso solicitado “concretamente a las memorias justificativas económicas del programa Bideberri de Goiztiri correspondientes a los años 2022, 2023 y 2024, garantizando en su caso la eliminación de datos personales de conformidad con la normativa vigente”.

CUARTO.- Recibida la reclamación, el secretario de la comisión solicitó el oportuno informe a la Dirección General de Inclusión Social del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, al ser la competente en la materia objeto de la reclamación.

QUINTO.- El día 22 de julio de 2025, la citada Dirección emitió informe del que resulta que considera oportuno conceder el acceso solicitado



sarbidea ematea, jarraian adierazten diren arrazoiengatik, irizpide-aldaketa justifikatzeko:

1. Erreklamaziogileak zehatz-mehatz mugatu du bere eskaeraren irismena, ekitaldi zehatzak zehaztu baititu (2022, 2023 eta 2024).

2. Eskaera programaren justifikazio ekonomiko orokorrean zentratzen da, eta horrek esan nahi du ez dela datu sentikorrik edo pertsonalik eskatzen eta, beraz, ez dela arriskuan jartzen gainbegiratzeko administrazio-jardueren efikazia, ezta informazio zehatza ematea ere.

3.- Horrenbestez, eskatutako informazioa eman behar da, gardentasun-araudia arautzen duten printzipioetan oinarrituta, eta erreklamazioa baiestea proposatu dio batzorde honi.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren (aurrerantzean, “1/2016 Foru Araua”) 27. artikulua bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

Foru-arau horren 29.1.1 artikuluekin eta 2. artikuluekin bat etorritik, Erreklamazio Batzordeak izango du eskumena Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-erakunde autonomoek, foru-erakunde publikoek, merkataritza-sozietate foralek, foru-fundazioek, foru-partzuergoek eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzearen aurkako erreklamazioak ebazteko.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru

en base a los motivos que seguidamente se indican, justificativos del cambio de criterio:

1. La reclamante ha acotado de manera precisa el alcance de su petición al especificar los ejercicios concretos (2022, 2023 y 2024).

2. La petición se centra en la justificación económica global del programa, lo que implica que no se solicitan datos sensibles ni de carácter personal, no comprometiendo en consecuencia la eficacia de las actuaciones administrativas de supervisión ni revelando información particularizada.

3.- Procede en consecuencia facilitar la información solicitada en base a los principios que rigen la normativa de transparencia y propone a esta comisión la estimación de la reclamación.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (en adelante, “Norma Foral 1/2016”).

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, de dicha Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de



Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren ("128/2016 Foru Dekretua") bidez onetsiak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: "a) *Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo isilbidez ukatzearen aurkako erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera*".

BIGARRENA. 1/2016 Foru Arauaren 18.1 artikuluan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen die pertsona fisiko eta juridikoei. Foru-arau bereko 17.2. artikulua arabera, informazio publiko gisa ulertzen da: "...edozein eduki edo dokumentu, erabiltzen den euskarria edozein dela ere, foru-arau honen aplikazio-eremuan aurreikusitako erakundeen esku dagoena eta beren funtzioen jardunean egin, aldatu edo eskuratu dena".

Beraz, arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eremu materiala mugatzen du, haren kontzeptu zabal batetik abiatuta, baina haren irismena mugatzen du, eta haren izaera publikoarekin lotutako bi baldintza betetzea eskatzen du: (a) foru arauak behartutako erakunderen baten esku egotea, eta (b) esleitu zaizkion funtzioak eta eskumenak gauzatzean egin edo lortu izatea.

Bestalde, aipatutako arauak informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko muga batzuk ere ezartzen ditu, 1/2016 Foru Arauaren 21. artikuluetan aipatzen direnak, eta horien konkurrentziak sarbidea ukatzea ahalbidetzen du; bai eta foru-arau beraren 22. artikuluan jasotzen diren eskaerak ez onartzeko arrazoi batzuk ere, baina herritarrek informaziorako sarbidea izan dezaten aplikatu eta interpretatu beharko direnak.

HIRUGARRENA. - Kasu honetan, berariaz ukatu da informazioa eskuratzeko eskaera, agindu horietan oinarrituta, baina, erreklamazioaren edukia ikusita, eskumena duen zuzendaritzak berriz aztertu du bere irizpidea, eta eskatutako

la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("*Decreto Foral 128/2016*"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: "a) *Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*"

SEGUNDO. La Norma Foral 1/2016 reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: "(...) *cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones*".

Por tanto, la norma delimita el ámbito material del derecho al acceso a la información pública a partir de un concepto amplio de esta, pero acota su alcance exigiendo la concurrencia de dos requisitos vinculados con su naturaleza "*pública*": (a) que se encuentre en poder de alguna de las entidades a las que la Norma Foral obliga, y (b) que haya sido elaborada u obtenida en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

Por otra parte, también establece la citada Norma algunos límites al ejercicio del derecho de acceso a la información, a los que se hace referencia en los artículos 20 y 21 de la Norma Foral 1/2016, y cuya concurrencia permite la denegación del acceso; y algunas causas de inadmisión de las solicitudes que se recogen en el artículo 22 de la misma norma foral, pero que deberán aplicarse e interpretarse favoreciendo el acceso de la ciudadanía a la información.

TERCERO. - En el presente caso nos encontramos con una denegación expresa de la solicitud de acceso a la información, basada en dichos preceptos, si bien, a la vista del contenido de la reclamación, la Dirección competente ha



informazioa ematea egokia dela ondorioztatu du.

LAUGARRENA. Beraz, baietsi egin behar da aurkeztutako erreklamazioa.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honek, honako hau erabaki du:

EBAZPENA

LEHENENGOA.-

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren uztailaren 4ko 293/2025 Ebazpenaren aurka aurkeztutako erreklamazioa baiestea. Ebazpen horren bidez, ukatu egin zitzaion informazio publikoa eskuratzeko eskaera, eta Zuzendaritza horri eskatzen zaio eman dezala erreklamazio-idazkian eskatutako eta zehaztutako informazioa.

BIGARRENA.- Ebazpen hau jakinaraztea erreklamaziora eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari. Era berean, Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Saileko Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau behin betikoa da, eta administrazio-bidea amaitzen du. Zuzenean aurre egin ahalko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan; horretarako, BI (2) HILABETEKO epea egongo da, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Sin./Fdo.: NEREA GARCIA RODRIGUEZ - 2025-09-22
BATZORDEKIDE TITULARRA
VOCAL TITULAR

Sin./Fdo.: UNAI ABERASTURI CANTERA - 2025-09-22
IDAZKARIA
EL SECRETARIO

Sin./Fdo.: MARIA EUGENIA MATE MENDIETA - 2025-09-22
PRESIDENTEA
LA PRESIDENTA

reconsiderado su criterio concluyendo la procedencia de facilitar la información solicitada.

CUARTO. Procede en consecuencia estimar la reclamación formulada.

Como consecuencia de todo lo anterior, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda dictar la siguiente:

RESOLUCIÓN

PRIMERO.- Estimar la reclamación presentada por ~~En~~ **Contra** la Resolución 293/2025, de 4 de julio, de la Dirección General de Inclusión Social del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, por la que se denegó su solicitud de acceso a la información pública, instando a dicha Dirección a que facilite la información solicitada y detallada en el escrito de reclamación.

SEGUNDO.- Notificar esta resolución a la reclamante y a la Dirección General de Inclusión Social del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

TERCERO.- La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS (2) MESES a contar del día siguiente al de su notificación.